



## ARGIBIDE ORRIA

### LEHEN PROBAREN B ZATIA

Arretaz irakurri ondorengo azalpenak. Garrantzitsuak dira proba behar bezala egin ahal izateko.

#### EZ IDATZI EZER ERE, MEGAFONIAK HASTEKO ADIERAZI ARTE

- Ikus ezazu ondorengo **materialak** badituzun:
  - ✓ Kartazal handi bat
  - ✓ Kartazal txiki bat
  - ✓ Identifikatzeko txartel bat
  - ✓ Azterketa-orriak
  - ✓ Zure jakintzagaiari dagokion gai-zerrendaHorietako ezer falta bazaizu, epaimahaikoei eskatu.
- Orain egingo duzun azterketa, **egilea nor den jakin gabe zuzenduko da**, eta hori dela eta, oso garrantzitsua da erantzuteko orrietan zure berri emango duen daturik ez jartzea: izena, nortasun agiriaren zenbakia, izenpea... arau hori betetzen ez baduzu, ariketa baliorik gabe utziko da.
- Megafoniatik adierazten dugunean, bete itzazu **identifikazio-txarteleko datuak**: lanpostua (ESPEZIALITATEA), izena eta bi abizenak eta NANA. Ez idatzi ezer ere orriaren goiko eskuin aldean ageri den laukian (zenbakia jartzen duen lekuan). Txartela izenpetu eta kartazal txikian sartu. Kartazal txikia itxi, eta handiaren barruan sartu; handia zabalik utzi behar duzu.
- Eman dizkizuten **erantzun-orrietan** egindako ariketak baino ez dira hartuko kontuan. **Saia zaitetz argi eta garbi idazten. Orriaren alde biak erabil itzazu idazteko.** Orri gehiago behar badituzu, epaimahaikoei eskatu. Ez ahaztu: orri bakoitzak bere zenbakia izan behar du, eta ariketa amaitu ondoren, jar ezazu —lehenengo orriaren laukian— zenbat orri dituen zure azterketak. **Ez izenpetu eta ez jarri inolako identifikazio-markarik zure azterketan.** Proba amaitu eta gero, besoa jaso; epaimahaiko kideren bat joango da zuregana, eta pertsona hori zurekin dagoela, zure azterketaren orri guztiak kartazal handian sartu, itxi eta epaimahaiko kide horri eman.
- Deialdiaren oinarrietan esaten denaz bat, proba hasi baino zertxobait lehenago **zozketa** bidez gai batzuk aukeratuko dira, eta zuk horietako bati buruz idatzi beharko duzu.

Gai Kopurua	Espezialitatea	Azalpenak
39	Pianoa	Zozketan ateratzen diren lehenengo 4 gaietatik bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
38	Konposizioaren Oinarriak	Zozketan ateratzen diren 38a arteko lehenengo 4 gaietatik (38a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
32	Biolina	Zozketan ateratzen diren 32a arteko lehenengo 4 gaietatik (32a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.

Gai Kopurua	Espezialitatea	Azalpenak
31	Musika Hizkuntza	Zozketan ateratzen diren 31a arteko lehenengo 4 gaietatik (31a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
30	Akordeioa	Zozketan ateratzen diren 30a arteko lehenengo 4 gaietatik (30a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
30	Perkusioa	Zozketan ateratzen diren 30a arteko lehenengo 4 gaietatik (30a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
30	Biolontxelo	Zozketan ateratzen diren 30a arteko lehenengo 4 gaietatik (30a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
28	Kontrabaxua	Zozketan ateratzen diren 28a arteko lehenengo 4 gaietatik (28a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
28	Saxofoia	Zozketan ateratzen diren 28a arteko lehenengo 4 gaietatik (28a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
28	Tronboia	Zozketan ateratzen diren 28a arteko lehenengo 4 gaietatik (28a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
28	Tronpeta	Zozketan ateratzen diren 28a arteko lehenengo 4 gaietatik (28a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
27	Fagota	Zozketan ateratzen diren 27a arteko lehenengo 4 gaietatik (27a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
27	Gitarra Elektrikoa	Zozketan ateratzen diren 27a arteko lehenengo 4 gaietatik (27a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
26	Tronpa	Zozketan ateratzen diren 26a arteko lehenengo 4 gaietatik (26a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.

6. Azterketaren hasieran **zehaztu zein gai aukeratu duzun**, zenbakia jarrita.
7. Ariketa egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NANA, ondo ikusteko lekuan, eta isil-isilik egon behar da. Norbaitek ezegoki jokatzen badu, edo beste lagunei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora bidaliko dute. **Telefono mugikorra aldean baduzu, deskonektatu, mesedez, eta erloju adimendun eramaten baduzu (smartwatch edo antzekoak), kendu eta gorde.** Mahai gainean, eman dizuten dokumentazioa eta NANA, ezin duzu besterik izan.
8. Bertaratu izanaren **egiaztagiririk** behar baduzu, azterketa amaitutakoan eskatu, epaimahaikoei.
9. Probaren **iraupena: 2 ordu.**

**ESKERRIK ASKO LAGUNTZEAGATIK.**